



ZIENTZIA AZOKA

# LEITZAKO LURREN KALITATEAREN AZTERKETA

AMAZABAL BHI

## SARRERA

Gure ikerketa Leitza herrian dago kokatuta. Leitza Nafarroako ipar-mendebaldean dagoen herri txiki bat da, 2900-3000 biztanle ingurukoa. Herria mendiz inguratuta dago eta, gure ustez, mendiko lurak eta herrikoak ezaugarri ezberdinak edukiko dituzte. Herrian, fabrika handi bat dago, 450 langile inguru dituena. Gure ikerketan fabrika horretako inguruko, herriko eta mendiko lurak alderatuko ditugu, bietatik hoberena zein den jakin ahal izateko. Horretarako, lurraren hainbat ezaugarri aztertuko ditugu, ala nola Ph-a, zizare kantitatea, etab.

## ONDORIOAK

### • **Analisi fisikoak:**

- Filtratze gaitasuna: herriko lurak ere ura filtratzeko gaitasun handiagoa duela neurtu dugu. Konpaktazio txikiagoa duelako izan daiteke. Gainera, bai mendiko lurak bai herrikoak ibai ondoan zeuden, baliteke horregatik irautea horren beste ura filtratzen.

### • **Analisi kimikoak:**

- pH-a: ez daude desberdintasunik. Lur guztiak sei eta zazpi baloreen artean baitzeuden.
- Materia organikoa: hemen, aldiz, desberdintasunak aurkitu ditugu. Arlo honetan mendiko lurak herrikoarenak baino erantzun hobek izan ditu. Materia organiko gehiago edukitzeak lur hori landareak hazteko hobea dela esan nahi du. Beraz, gero eta materia organiko gehiago edukiz gero, landare gehiago hazi ahalko dira eremu horretan.

### • **Analisi biologikoak:**

- Zizare kantitatea: hemen, gure usteen aldera, herriko lurretan zizare gehiago aurkitu genituen. Esan beharra dago, plazaolako lurrean harri asko zeudela, eta ezin izan genuela behar genuen lur kantitate guztia atera. Beste alde batetik, Urton, lurak hondarra zeukan, eta oso hezea zegoen. Baliteke arrazoi horiengatik zizare gutxiago aurkitu izana mendiko lurretan.

Beraz, gure hipotesi oker dagoela esan dezakegu. Herriko lurra ez da mendikoa baino okerragoa, arlo batzuetan hobekagoa eta guzti da. Biak antzekoak direla esan dezakegu, batek analisi mota batean erantzun hobekak ditu eta besteak beste batean.



## HIPOTESIA

Mendikoak, kutsadura gutxiago eta ezaugarri fisiko, kimiko eta biologiko hobekagoak izango dituela uste dugu. Herrikoak kutsadura handiagoa eta ezaugarri okerragoak izango dituela suposatzen dugu.

